

Arratsalde on, Edurne:

Nire izena Sebas da, argentinarra naiz eta 35 urte dauzkat.

Lehenik eta behin, irratiko entzule amorratua naizenez, izugarri pozten nau zure irratiko saioan parte hartzeak.

Horrez gain, eskerrak eman nahi dizkizut zure irratiko saioagatik, oso interesgarria iruditzen zaidalako, eta nire ustez aholku onenak ematen dituzulako.

Honen bidez azalduko dizut zein den nire arazoa. Egunero goizeko 6:00etatik gaueko 21:00ak arte etxetik kanpo egoten naiz. Lan gogorra egiten dut, eta esaten dudanean egunero, astelehenetik igandea arte izaten da.

Horretaz gain, bakarrik bizi naiz. Nahiz eta denbora ez eduki, nire etxea nahiko garbi mantentzen saiatzen naiz. Hori nire logela kontuan hartu gabe. Hura hankaz gora dago! Nire armairuaren antolaketa penagarria da. Arropaz gainezka dago, eta dena nahaste bat da. Gainera, arropa guztiak tolestu gabe daude, eta, batzuetan, lurrean daude eta, beste batzuetan, agertzen dira armairuko kutxa batean (ez dakit nola agertzen diren leku horietan, batzuetan nik uste dut magia izaten dela edo egiten dudala)

Txukuntzeari dagokionez, zer egin nezake arropa txukunago edukitzeko? Eta beste armairu handi bat erosiko banu? Hori izango litzake irtenbide bat edo? Ai ama! sentitzen dut hainbeste galdera egiteagatik, baina zer egin beharko nuke?

Bukatu baino lehen, mila esker aholku baliagarriak emateagatik, eta hemendik aurrera saiatuko naiz zure aholkuak martxan jartzen. Eskerrik asko zure irratiko saioan parte hartzen uzteagatik.

Agur bero bat.

Sebas.